

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

BISITAK ETA IBILALDIAK

[Bisita gidatuak Karlismoaren museoan](#)

Estella-Lizarra

Osteguna, ostirala, igandea / 11.30etan, 12.30etan

Doako bisita gidatuak Karlismoaren Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko.

Sarrera librea aretoa bete arte (gehienez 25 pertsona)

Informazio gehiago: [Http://www.museodelcarlismo.navarra.es](http://www.museodelcarlismo.navarra.es)

[Bisitak "Danok Taldea. 1966-1967"](#)

Nafarroako Museoa

Igandea / 12.30etan

Bisita gidatuak "Danok Taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara, Angel Macías eta Josune Ilundainen eskutik, gaztelaniaz zein euskaraz, egunero, 12:30ean, ondoko egutegiaren arabera.

ERAKUSKETAK

["Makotu"](#)

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Erakusketa. 2018ko martxoak 22 – ekainak 3

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Museo Sarea eta Eguesibarko Udala
Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) artistak, azken urteotan, Jorge Oteizaren legaturako eta haren eskultura-proiektuan sinbolikoa eraikitzeke modurako hurbilketa kritikoa proposatzen duen obra multzoa egin du. Horren bitartez zalantzan jartzen ditu modernitatearen amaieran eskultorikoa irudikatzeke mekanismoak.

["Danok Taldea. 1966-1967"](#)

Nafarroako Museoa

2018/03/10 - 2018/05/27

Nafarroako Museoa "Danok Taldea. 1966-1967: Modernitate osatugabea" erakusketa eskainiko du, Nafarroako garai hartako arte-munduko 27 artistaren 40 lanez osatua. Danok taldearen bat izango ziren Nafarroako artisten lanek osatzen dute erakusketa hein handi batean: José Ulibarrena, Isabel Baquedano, Julio Martín Caro, José M.^a Ascunce, Gloria Ferrer, José Antonio Eslava, Xabier Morrás, Jesús Lasterra, César Muñoz Sola, Salvador Beunza, Juan Miguel Echeverría, Pedro Osés (zeinen obra bat erakusten den, Juan José Aquerretarekin elkarlanean egin), Eugenio Menaya, Narciso Rota, Miguel Echauri, Mariano Sinués eta Pedro Manterola.

["Ikusgai egiten duen gaua"](#)

Huarte Zentroa

2018/03/24 - 2018/04/29

Rachel Labastie y Nicolás Delpratek Egulbatin garatutako egoitzaren amaierako erakusketa. Egoitza hau Euskadi, Akitania, Nafarroa euroeskualdearen baitan sortutako mugazgandiko elkarlanaren fruitua izan da.

[“Meatzariak gerran”](#)

Museo del Carlismo

2017/11/30 - 2018/04/15

Gaztela eta Leóngo Siderurgia eta Meatzaritza Museoaren ekoizpena da, eta egokitu eta eduki berriak gehitu dira espazio honetan muntatzeko. Doanekoa da, 2018ko apirilaren 15era arte.

Erakusketak Karlistaldien eta Espainiako Gerra Zibilaren arteko aldiaren erabilitako meatze-teknikak eta trintxerak egitekoak erakusten ditu, Lehen Mundu Gerraren nabarmenduta.

HAURRENTZAKO AISIA

[Ongi etorri ipuinetara: Kamishibai](#)

Nafarroako Liburutegia. Haurren liburutegia

Asteazkena / 18.00etan

Ipuin-kontalaria. Boz gorako irakurraldia.

Saioa gaztelaniaz

Sarrera: librea, aretoa bete arte.

Jarduera boluntarioekin egiten da.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez irakurriko dira ipuinak.

KONFERENTZIAK

[Placeres y tormentos de No sufrir compañía](#)

Nafarroako Liburutegia

Astelehena / 19.00etan

Kulturaren Vianako Printzea saridun Ramón Andrés idazle eta saiakera-idazleak itxiko ditu “Bakardadea mundu garaikidean” jardunaldiak, “Placeres y tormentos de No sufrir compañía” izenburuko hitzaldiaren eskutik. Bakardadeari buruz hausnartu du Ramón Andrések saiakeretan. Zehazki, “No sufrir compañía”, “Semper dolens. Historia del suicidio en Occidente” eta “Pensar y no caer” liburuen hainbat orrialdetan egin du.

TAILERRAK

[Moldeen eta erreproduzkieen lantegia](#)

Huarte Zentroa

Astelehena, asteartea / 17.00etan

Nafarroako edozein etapetako irakasleei zuzendutako ikastaro honetan, errealitatea behatzea, zatitzea, irudikatzea, erreproduzitzea, eraldatzea... nahi da. Moldeak sortzeko tekniken bidez, berez ikasteko estrategiak direnak ikasiko dira.

[Tresna teknologikoak erabiliz proiektu artistikoak egiteko lantegia](#)

Huarte Zentroa

Ostirala /15.30etan

Martxo eta maiatza artean 8 ostiraletan Tresna teknologikoen bidez proiektu artistikoak aratzeko, artista eta ingeniariaren arteko elkarlanean eta ikerketan oinarritutako lantegia. MedialLab-Pradon garatutako elkarlanerako “Interactivos?” prototipatuan medialab-

prado.es/interactivos, oinarritua dago bertako testuingurura eta baliabideetara egokitua baina teknologia eta sorkuntza prozesuen elkarlanerako izaera mantenduz.

ZINEMA

Gauean hondartzan bakarrik

Nafarroako Filmoteka

Asteartea / 20.00etan

Hong Sang-soo-ren filmek beti dute osagai autobiografikoren bat. Dena den, hemeretzigarren pelikula hau da seguruenik egin dituen artean pertsonalena. Kim Minheekin mantendu zuen erlazionaren ondorioz agertu ziren izenburu amorratuei emandako erantzun neurridun eta argia.

Aktoresa onenari emandako saria irabazi zuen Kimen antzezpene izugarrian oinarrituta, Gauean hondartzan bakarrik bere lanetan sakonera handiagoa bilatzen ari den maisu baten obra da.

Zuzendaritza eta gidoia: Hong Sang-soo

Eskafandra eta pinpilinpauxa

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

1995ean, Elle aldizkari frantsesaren idazle zen 43 urteko Jean-Dominique Baubyk enbolia bat jasan zuen. Hiru aste koman egon ondoren, esnatzerakoan bere burua gatibutasun sindromearen menpe aurkituko du; gorputza paralizatuta du guztiz, ezin mugitu, jan, hitz egin edo bere kabuz arnasteko gai izan gabe.

Bere adimenak modu normalean lan egiten du, ordea, baina bere begi ezkerren kliska da besteekin komunikatzeko duen modu bakarra. Egoera berri honi ohitu beharrean, bere memoria eta irudimena erabiliz mundo berri bat sortuko du.

Jean Dominique Bauby-ren “Eskafandra eta pinpilinpauxa” eleberrian oinarritzen da filma.

Zuzendaritza: Julian Schnabel.